

## MUGAIRAGAZKORRA Maje Sóez Beloki

«Esaidak, zoriotsuak al zarete mugaz bestaldeko biztanleak?».

*Bernardo Atxaga: 37 preguntas a mi único contacto al otro lado de la frontera, 1982.*

MUGARI GALDETZEN DIOGU, lehenago gure gurasoek galdetu zioten moduan, eta lehenago oraindik haien gurasoek egin zuten moduan, eta are lehenago, haien gurasoen antzera. Eta betiko balioko duen erantzun bat topatzeko esperantza hutsalarekin galdetzen diogu. Izan ere, ez dugu uste erantzunik dagoenik.

Pentsatzen dugu muga dela beste aldea islatzen duen ispilua, baina kristalinoaren lurralde estalia banantzen duen beiraren barruko erdikaria baino ez da: Hura eta Hau.

Pertsona bakoitzak bere muga dauka, inork ez duelako berdin galdetzen. Eta hortxe dago paradoxa: betiko galderak daude mugetan eta, hala ere, galdera horiek konpartimentu iragazgaitzak sortzen dituzte, eta nekez aldatu daitezke lekuz.

Mugak zeharkatu eta galderak elkartzen direnean sortzen da iragazkortasunaren miraria. Une horretan, katez lotutako galderek ihes egiten dute, iragazi egiten dira, elkarri besarkatu, eta galdera berriak sortzen dituzte.

Nahita iragazkorrak diren mugetan egiten dute lan Atxagak eta Landak. Eta muga horiek sendo dituzte oinarriak, paperean. Edo mihisean. Esate baterako, hegal batetik jasotako oihalean. Bertan, etengabeko trazu azkarrean, Bernardo Atxagaren pintzelak kaiok marrazten ditu, bilkuran, tren-estazio baten parean. Esate baterako, folio zuri batean. Bertan, oroimenez eta zehaztasunez beteta, Erramun Landaren idazlumak dio kaiok horiek maitasuna eta tertulia trukutzen dituztela, arrastietan.

Akaso inoiz ez zen horrela izan. Akaso errealtatearen notarioa jatorrizko mugen bila ibiliko zen, eta kontakizunaren kronologia zehaztuko zuen. Esate baterako, esango zuen Erramun Landaren pintzelak tindatu zituela kaiok, eta Bernardo Atxagaren idazlumak asmatu zuela istorio sutsu hori.

Idazluma horrekin galdera egin zion Atxagak bere mugari egun batean, eta Desparadisuari buruz galdetu zion, harezko zutabeen gainean eraikitako taki horri buruz. Isiltasunez betetako bagoiak heltzen ari zirela ikusi zuen idazluma horrek. Eguneroko bizitza ikatza bezalako labezomorroak isurtzen topatu zuen idazluma horrek jendearen gainean. Sagarrondo ttipi bati sehaska-kanta abestu zion idazluma horrek...

Atxagak nahita iragazkor bihurtutako eta Landak indarrez ernaldutako muga zaharren zatiak dira horiek, partekatutako galdera bakoitzari beti erantzun aztoratua emanez.